

GIZARTE EKONOMIA ETA SOLIDARIOA UNIBERTSITATE MASTERRA
MÁSTER UNIVERSITARIO EN ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA



UPV/EHUko Gizarte
Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institutua

Instituto de Derecho
Cooperativo y Economía
Social de la UPV/EHU

Ikerbiltza programako praktiken garapena
Udal politiketarako gidaliburua

*MASTER AMAIERAKO LANA
TRABAJO DE FIN DE MÁSTER*

AUTOR: IBAI ISUSI SANZ

CURSO: 2016-2017

DIRECTOR: JON MORANDEIRA

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

Aurkibidea

1.	SARRERA	2
2.	UDALBILTZAREN AURKEZPENA.....	4
3.	MARKO TEORIKOA.....	6
3.1.	Gobernantza lokala eta Tokiko Giza Garapena.....	6
3.2.	Ekonomia Sozial eta Solidarioa	8
3.3.	ESS eta esku hartze publikoa	12
3.3.1.	ESS eta administrazio publikoa.....	12
3.3.2.	Ekonomia Sozialerako politika publikoak	13
4.	PRAKTIKEN GARAPENA	15
4.1.	EGITURA	16
4.1.1.	Atalak	16
4.2.	FASEAK	18
4.3.	EDUKIAK.....	20
4.3.1.	Sailkapena/atalak.....	20
4.3.2.	Esperientziak	23
5.	BALORAZIO KRITIKOA	27
	BIBLIOGRAFIA	29

1. SARRERA

Aurrean dugun lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak eskaintzen duen Ekonomia Sozial eta Solidario Masterreko praktiketan oinarritzen da, Udalbiltza partzuergoaren eta GEZKI institutuaren arteko hitzarmenak bultzatua.

Udalbiltzako “Ikerbiltza” programak, Ekonomia Sozial eta Solidarioan interesa erakutsi zuen, praktiketarako aukerak luzatuz. Udalbiltzak udalen arteko elkarlanean diharduenez, tokiko politika publikoetan sakondu nahi zuten, baliogarriak edota interesgarriak izango ziren neurriak eta praktikak biltzeko, eta ondoren udalekin, lurraldeekin eta partzuergo-kideekin bereziki, lan ildoak posibleak garatzeko. Nire politika publikoekiko hautua, tokiko garapenaren eta munizipalismoaren eztabaidetatik dator. Tokiko administrazioak aktore garrantzitsuak baitira tokian tokiko giza garapenerako. Izan ere, merkatu eta instituzio globalen eta herri sektoreen artean kokatzen den agentea dugu, hots, komunitatetik gertuen dugun erakunde publikoetariko bat, hauen arteko lankidetzaz ahalbidetuz.

Beraz, helburu nagusia praktika hauetan udalei zuzenduriko politika publikoen eta praktika onen gida egitea izan da, eskasa baita gai honi buruzko publikazio kopurua. Bigarren mailako helburua, Euskal Herriko udal esperientzien identifikazioa egitea eta mapa gainean kokatzea da, aberasgarriak diren heinean ikusgarri egiteko. Eta azkeneko helburua, ESSren eta administrazio publikoaren arteko aliantza estrategikoa azpimarratzea da. Erakunde publikoen papera berebizikoa da ESSko esperientziak bultzatzen, sortzen, babesten eta azalazten. Tokiko administrazioak ESSko eragile zuzenak ez diren arren, beste gizarte eta garapen eredu baterako bidelagun garrantzitsua izan daiteke.

Lanaren egiturari dagokionez, lehenengo kapituluan Udalbiltzaren aurkezpen simple bat egiten da, batez ere, bere jarduera sozioekonomikoa ezagutarazteko. Hurrengo atalean, marko teoriko labur bat aurkezten da hurbilpen kontzeptual modura, egindako gidaren nondik norakoak azaldu dezakeenak. Honetan, egungo gobernantza globalaren testuingurua aztertuko da Tokiko Giza Garapena eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren arteko aliantza, gobernantza eta sistema eredu honen alternatiba bezala aurkeztuz. Bestetik, ESSren eta esku hartze publikoaren arteko harremanaz hausnartzen da, ondoren, politika publikoen kontestua laburki errepasatuz. Laugarren atalean, praktiken

garapenean sakontzen da, gidaren osaketan zehazki. Honetan, gidaren hasierako ideiak, helburuak, esperientziak aukeratzeko irizpideak, informazioa lortzeko teknikak eta beste hainbat xehetasun argituko dira. Eta azkenik, balorazio kritiko bat egingo da bai gidaren eta praktiken inguruan, baita lan honen inguruan ere.

Metodologiari erreparatuz, ikerketa deskriptibo baten aurrean gaude, errealitate baten errepresentazioa edo irudikatzea izan baita, lurralde bateko informazio ezberdina bilduz. Hiru fase ezberdindu daiteke metodologiari dagokionez. Lehenengokoa, gidaren inguruko *hausnarketa fasea (proiektua)* izan zen, honen diseinua garatuz eta egituratuz. Bigarrengoan, *esperientzia ezberdinak identifikatu (informazioa)* ziren biltegi bat osatuz eta aukeraketa posibleak egin ziren. Fase honetan, bigarren mailako datuetara jo zen. Azkenik, *egiaztatze edo kontrastatze fasea* garatu zen behin behineko esperientziak aukeratzeko eta ondoren hauen kontrastea egiteko. Kontraste fase honetan bi teknika nagusitu ziren: batetik, elkarrizketak, eta bestetik, telefonoz bidezko galdeketa.

Gidan agertzen diren esperientziak, udal ezberdinek bultzatutako neurriak, programak eta ekintza dira, gradu ezberdinetakoa. Asko, Ekonomia Sozial eta Solidario bezala definitu ditzakegu, beste batzuk, ordea, ESSren aliatuak dira beste ekonomia eta gizarte eredu baterako bidean; eta beste asko, bide honetarako pausu txikiak dira.

2. UDALBILTZAREN AURKEZPENA

Udalbiltza, Euskal Herriko udaletxeak, herriko etxeak eta hautetsiak batzen dituen partzuergoa da. *“Udalbiltza Partzuergoak Euskal Herriko garapen eta barne kohesioa sustatzea ditu helburu nagusiak. Horretarako, hiru eremu administratiboetako (Nafarroako Foru Komunitatea, EAE eta Pirinio Atlantikoko Departamentuen Nafarroa Beherea, Zuberoa eta Lapurdi) udalen arteko elkar ezagutza eta lankidetzaren dinamika bultzatzen ditu, Euskal Herriko jendartearen dinamismo handiko espresioak diren eragileak ere aintzat hartuz.¹”*

Azken urteotan jarraituriko ibilbideak markaturik utzi du Udalbiltzaren apustua ESSreko eta tokiko garapen sozioekonomikorako. 2012. urtean Udalbiltza Partzuergoak bere lana berreskuratu zuenean, Euskal Herriko udal hautetsien artean parte hartze dinamika bat abian jarri zuen. Ekimenak Udalbiltzaren lehentasunak definitzea zuen helburu. Prozesuaren amaierako batzarrean, 2013ko martxoaren 2an Donostiako Victoria Eugenia antzokian, milatik gorako udal hautetsiek emandako iritzien araberrako ondorioak plazaratu ziren. Honen ondorioetako bat, lurralde garapena eta kohesio sozioekonomikoa sustatzea izan zen, lan ildo besteen gainetik aurreneko lehentasuna izan zen.

Euskal Herri osoaren lurralde garapena eta kohesio sozioekonomikoa sustatu nahian, Udalbiltza Partzuergoak urrats ezberdinak eman ditu:

- a) Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa erakunde autonomoa sortu du.
- b) Euskal Herriari Begira aplikazio digitala sortu du. EHko diagnostiko dinamikoa dena.
- c) Euskal Pirinioetan lan eta bizi tokiko garapenean ariketa praktikoa egin du.

2013an, “Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa” erakundea sortu zuen Udalbiltzak, lurralde garapena eta kohesio sozioekonomikoa sustatzeko helburuarekin. Fondo

¹ <http://udalbiltza.eus>

honen proiektuetako bat, “Euskal Piriniotan lan eta bizi” izan zen eta Fiare Banca Etikoaren babesa jaso zuen.

Bestalde, “Ikerbiltza” programa abian jarri zuten arlo guztietako jakintza tresna bihurtu ahal izateko, beste gizarte eredu baten alde. Programaren jardun nagusia, unibertsitateekin eta ikasleekin harremantzea da, lan ildo komunak jorratuz eta hauen jakintza aprobetxatuz.

“Gure herriaren kohesio eta eraikuntzarako ezinbesteko bitartekoa da jakintza. Jakintza modu egokian erabiliz gero, burujabetza bidean pausu garrantzitsuak ematen lagunduko digu. Euskal Herrian jakintza maila aberatsa dugu: hausnarketak, eztabaidak, azterketak, ikerketak, ... Euskal herritarrok egunez egun ekinean eta lanean dihardugu. Horregatik, Ikerbiltzatik, jada egiten ari garen bide horretan sakontzen lagundu nahi dugu, egon daitezkeen beharrak identifikatuz eta esku artean ditugun bitartekoak konpartituz. Egunez egun, herrialdez herrialde eta eremuz eremu. Herritar eta agente ororekin harremanak elikatu eta elkarlana sustatzen ari gara. Gaurdanik Euskal Herria artikulatu eta egituratuz”².

Ikerbiltzak, arlo estrategikoekin lan egin du azken urteotan. Hainbat ikaslek eta ikerlarik parte hartu dute Ikerbiltza programak euren lanak eta jakintzak konpartituz. Generoa, energia, ikus-entzunezkoa, ekonomia, arkitektura, hidrologia eta beste hainbat gaik bete dute Ikerbiltza programa eduki interesgarriez. Gainera, ikasleen eta udalen arteko elkarlana sustatu nahi du proiektu posibleak garatuz.

Beraz, Ikerbiltza programaren egitasmoa da aurrean duzuen lan hau, izan ere, azken urteotan tokiko administrazioen gobernantza eta praktika arduratsuen aldeko apustua nabaria izan da eta Udalbiltzaren jarduna udalen arteko elkarlanean oinarritu denez, tokiko garapenarena jorratu beharreko alorra izan da.

² <http://udalbiltza.eus/Ikerbiltza/Sarrera>

3. MARKO TEORIKOA

Hurrengo orrietan, saiatuko da gaiari buruzko hurbilpen teoriko bat egiten, gobernantza globalaren eta lokalaren arteko tira biren testuinguru bat aurkeztuz eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren oinarritzko kontzeptuak testuinguru horretan kokatuz. Azkenik, politika publikoen hurbilpen bat egingo da.

3.1. Gobernantza lokala eta Tokiko Giza Garapena

Egungo sistema ekonomikoak enpresa transnazionalak eta erakunde globalak ditu gidaritzapean. Estatu Nazioak izan duten boterea pixkanaka galtzen joan da eta beste agente garrantzitsuak sartu dira gobernantza eremuetan. Ondorioz, ekonomia eta garapen lokala indar ekonomiko globalengatik baldintzatua izaten ari da, garapenaren eredu bat nagusituz (Zurbano, Gainza eta Bidaurratzaga, 2014). Beraz, marko lokala berreskuratzeak aukera ematen du garapena beste oinarri batzuetan planteatzeko eta tokian toki moldatzeko.

Lurralde ororen helburuetariko bat da garapena, garapenak laguntzen baitu ongizaterako bidera. Dena den, garapenaren ikuspegi ekonomizista nagusi izan da mendebaldeko gizartean, hazkunde ekonomikoari, eta batik bat, BPGri loturikoa. Bitartean garapenaren beste teorizazio ugari izan dira, batez ere, maila komunitario baten.

Tokiko Giza Garapena (TGG) da azkenaldian gehienbat arlo akademikoan entzuten eta aldarrikatzen den terminoa, garapenaren ulerkera ekonomizista eta konbentzionaletik at dagoena. Latinoamerikar pentsamenduetatik eratorria, garapenaren beste alderdi batzuei erreparatzen dion ikuspegia da, komunitatearen ongizatean eta gaitasun pertsonal eta kolektiboetan oinarrituz. Era berean, tokian toki txertatzen den teoria da, dimentsio lokala baita teoria honen beste zutabeetako bat. Larrañagak eta Jubetok ekarpen interesgarria egiten dute eztabaida honen gainean (Larrañaga eta Jubeto, 2011;27):

“TGGtik, pertsonen eta taldeen garapena erreala bilatzen duten tokiko komunitateen jarduera-estrategia bat proposatzen da. Haren helburua da tokiko komunitatearen ahalduntzea lortzea, kontrol handiagoa izan dezaten haien garapen-baldintzak eratzen dituzten mekanismoen gainean”.

Bestalde, giza garapenean oinarrituriko prozesuak aztertu eta indartu ahal izateko esparrua da lokala. Beraz, estrategia honetan erakunde publikoak eta batez ere, udaletxeak eta erakunde lokalak, tresna garrantzitsuak izan litezke tokiko giza garapenerako.

Mendebaldeko gizartean udala da pertsonetatik hurbilenean dagoen instituzio publikoa. Dimentsio lokalak bermatzen du lurraldearen garapena herritarren eta inguruaren beharren eta gabezien arabera izatea. Herritarren ongizaterako beharrezkoa da pertsonak proiektuaren parte eta ipar izatea. Testuinguru honetan, tokiko administrazioak aktore sozioekonomiko garrantzitsuak dira eta hauen papera beharrezkoa da lurraldeko giza garapenerako. Jakinda merkatu publikoak Europako PIBaren % 15 hartzen duela, sektore publikoa tokiko garapena bultzatzeko berebiziko agentea da.

Dena den, ohiko politika publikoak eta hortaz, udal politikak, ahalmen eskasa dute lurraldean eragiteko. Batzuetan, ez da formula egokia lortu, besteetan aldiz, formula eta neurri kaltegarriak bideratzen dira aurretik aipaturiko garapen ekonomikoa nagusituz. Garapena ardatz sozialago eta jasangarriago baten bideratzeko, tresna ezberdinekin kontatzen dugu, eta hauen artean, Ekonomia Sozial eta Solidarioa dugu azken urteotan presente.

Politika publikoen testuingurua azaldu aurrerik, ESSa aurkezten saiatuko da ondoren bi hauen arteko lotura eta harremana ikusiz eta marko juridiko baten kokatuz.

3.2. Ekonomia Sozial eta Solidarioa

Ekonomia Sozial eta Solidarioa, maila lokal eta komunitario batean garatu izan da, eta beraz, Estatuaren politika sozialen eta arautegi legalaren aurretiazkoa. Jendearen eguneroko edozein arazori, laboralei, osasun arazoei, etxebizitza arazoei eta abarri aurre egiteko enpresa lokalak izan dira, herritarren eskuetara betiere. Esan beharra dago, nahiz eta ESSren bandera eramaten duten proiektu anitz egon, guztiek ez dutela izaera eta errealitate bera, eta helburu berdinak edo antzekoak izan arren, jarduna modu ezberdinean egin daitekeela (Coraggio, 2011). ESS ordea, ez da kontzeptu eta teoria bakar bat, bi korronteen (*Ekonomia Soziala* eta *Ekonomia Solidarioa*) arteko “ahaidetasuna” dela esan genezake, teoria eta proiektu orokorrago bat eta osotuago bat eraikitzeko ibilbide berean.

Ekonomia Soziala da bi korronte hauetatik egonkortasun instituzional eta teoriko handiena lortu duena, estatu ezberdinetan marko juridiko propioak izanik. Autore askoren arabera, Ekonomia Sozialaren terminoa XIX. mendean agertzen da elkarte popularretara eta kooperatibetara loturik. Chavesek eta Monzónek (2008) adibidez, 1830ean kokatzen dute ESren lehen agerraldia literatura ekonomikoan, Charles Dunoyerren eskutik. Ekonomista liberal honek, ekonomiaren alde soziala eta morala aldarrikatu nahi zuen “*Traité d’économie sociale*” lanean. Dunoyerren ekarpenak XIX. mendeko bigarren erdialdean indartu eta birdefinitu ziren John Stuart Mill eta Leon Walras autoreen bitartez. Izen handiko ekonomista hauek, gizarte kapitalistak sortzen zituen arazo sozial berriei erantzuteko agertzen ziren esperientzia berritzaileak izendatzeko berreskuratu zuten terminoa.

Dena den, historikoki hiru familia nagusik egituratzen dute Ekonomia Sozialaren kontzeptualizazioa: kooperatibak, mutualitateak eta elkarteak (Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2009). Azken hamarkadetan ordea, krisiak sorturiko testuinguru eta beharrian berriak (osasunarekin eta zaintzarekin loturikoak), erakunde ezberdinen sorrera bultzatu dute, aurreko hiru egituren taldea handituz. Autore hauen esanetan, egun ES bi ardatzetan banatu dezakegu, batetik merkatukoa, elkarte tradizionalenak jarduten dutenena, eta bestetik merkatuz kanpokoa, hots, irabazi asmorik gabeko erakundeena.

Ekonomia Solidarioa, Ekonomia Sozialaren enbor beretik jaiotzen da, harreman ekonomikoak beste parametro batzuetan eraikitzeko. Produkziozko, banaketazko, finantziariozko eta kontsumozko harreman ekonomikoak, justizian, kooperazioan, elkarrekikotasunean eta elkar laguntzan oinarritzen dira. Egungo logika ekonomikoa metaketan eta aberastasunean oinarritzen den bitartean, Ekonomia Solidarioa pertsonak, beren lana eta natura jartzen ditu erdigunean. Modu honetan, eredu ekonomiko konbentzionalaren alternatiba bat aldarrikatzen du aldaketa sozialerako tresna bezala, garapen justu, jasangarri eta parte hartzaile bat sustatuz (Guridi, et al., 2011).

Era berean, Ekonomia Solidarioaren parte diren eragile ezberdinen antzekotasun nagusia logika kapitalistarekiko mozketak da, helburuetan, funtzionamenduan, etekinetan eta ondorioetan. Eragile hauek ordea, ez dira marko juridiko baten kokatzen eta ez daude ezta egituretan definituta, esperientzia sozioekonomiko, jardun enpresarial edota ikuspegi teoriko anitz biltzen baititu. (Guridi, et al., 2011).

Ekonomia Sozial eta Solidarioari dagokionez, ikuspuntu ezberdinak daude lurraldearen arabera, Hego Amerikako Juan Luis Coraggio autorearen ekarpenak izan dira ordea garatuenak. Bere "*Economía Social y Solidaria. El trabajo antes que el capital*" lanean, Coraggiok Ekonomia Sozial eta Solidarioaren bi esangura nagusi azpimarratzen ditu:

- Sistema ekonomiko bezala definitzen duena, zeinaren funtzionamenduak gizarte justu eta orekatu baten oinarri materiala ziurtatzen duen.
- Sistema ekonomiko alternatibo bat helburu izanik, sistema kapitalistaren joera sozial negatiboei aurre egiteko bideratua dagoen ekintza kolektiboko proiektua da.

Bigarren definizioa eraldaketa soziala suposatzen du, eta beraz, esan daiteke Ekonomia Sozialaren esanguratik aldenitu egiten dela. Ekonomia Sozialaren enbor juridikoa hustu eta eduki teoriko eta filosofikoz betetzen du, agenteen definizio eta zerrendaketa zurruna garrantzia galduz. Eduki hauek aldiz, zehazturik eta garaturik daude eragile ezberdinengatik.

Coraggiok bere lanean, 21 oinarri ekonomiko aurkezten ditu ESSk bete beharko lituzkeenak baina Guridi eta beste autoreek 6 *printzipio* aipatzen dituzte, Ekonomia Solidarioaren Kartatik ateratakoak eta REAS (Red de Economía Alternativa y Solidaria) sarearen baitan dauden proiektuak konpartitzen dituztenak. Kontuan hartzekoa da,

printzipio hauek ongizatearen, justizia sozialaren eta iraunkortasunaren zutabeetako batzuk direla eta erakunde publikoak beren defentsan jardun behar dute:

- 1- Ekitatearen printzipioa: “Pertsona guztiek dute duintasun berbera, eta eskubidea dute menderatze-harremanen azpian ez egoteko”. Berdintasuna aldarrikatzen da.
- 2- Lanaren printzipioa: “Lana funtsezkoa da pertsonen eta komunitatearen bizi kalitaterako”; “biztanleen egiazko beharrak bete ahal izateko”; Borondatezko lana eta auto-enplegua azpimarratzen da.
- 3- Ingurumen-iraunkortasunaren printzipioa: “Ekoizpena eta ekonomia-jarduerak naturarekin lotuta dago... haren eskubideak aitortzea da gure abiapuntuta”. Gizakiaren aztarna ekologikoa ekiditea da helburua, kontsumo eta produkzio arduratsuan oinarrituz.
- 4- Lankidetzaren printzipioa: “Lehiaren ordeztu, lankidetzaren sustatu... bidezko harreman komertzialak, berdintasuna gardentasuna...”.
- 5- “Irabazi asmorik gabekoa” izatearen printzipioa: “Guk erabiltzen dugun eta sustatu nahi dugun ekonomia-ereduak pertsonen garapen integrala, kolektiboa eta banakakoa du helburu... jardueren irabaziak xede sozialetara bideratuak dira”.
- 6- Inguruarekiko konpromisoaren printzipioa: “Lurraldearen tokian tokiko garapen iraunkor eta komunitario bultzatuta gauzatzen da inguruarekiko konpromisoa”.

ESS ez da bakarrik ekintzaile produktibo txikien sorkuntza proposamen bat, ezta sinpleki kooperatibak eta mutualitateak. Ezin dira ezta bakarrik kontuan hartu sektore pobreenak, biztanleri osoari zuzendutako proposamenak baitira ongizate bat bermatzeko asmoz (Guridi, et al., 2011).

Beraz, zer nolako kolektiboak sartu ditzakegu ESSren baitan baldin eta biztanleria osoari zuzendua badago. Carpien arabera, ez dago zehaztuta. Izan ere, batzuek irabazi asmorik gabeko kooperatibak, mutualitateak eta erakundeak sartzen dituzte, baina beste batzuek gainera, erakunde politiko eta sozialak ere sartzen dituzte (sindikatuak, lobiak...), baita Gobernu Kanpoko Erakundeak eta borondatezko lana. Hala ere, lobiak, sindikatuak eta bestelako erakunde politikoak sartzeak, errealitatea lausotzen du eta ez ditu kapitalismoarekiko marra gorriak jartzen (Carpi, 1997).

Guridi eta beste autoreen kasuan, ESSren sektore honetan hurrengokoak barneratu beharko lirateke (Guridi, et al.,2011:21):

“...todas las organizaciones económicas basadas en el trabajo asociativo, autogestionado democráticamente, orientadas por la satisfacción de las necesidades de sus miembros y sus comunidades, y a todas las redes y acciones colectivas que las articulen”.

Partaidetzari dagokionez, ekonomia asoziatibo bezala aurkezten da. Ekonomia honen partaideak, bai kontsumitzaileak, baita ekoizleak, elkartu egiten dira elkarren artean asetzeko, kontratuen bidezko produkzioa ez bezala. Ekonomia kapitalista, irabaziak lortzeko produzitzen duen heinean, produkzio sozial eta solidarioak beharizanak asetzen saiatzen da. Era honetan, ESSren premisak onartzen dituen orok parte hartu dezake proiektuan, enpresa bat, GKE bat edota erakunde publiko bat izan, solidario hitzak eragileen poltsa irekitzen baitu (Harguindeguy, 2008).

Ondorioz, esan dezakegu erakunde edo kolektibo bat ESSren baitan kokatzean irizpide ugari jarraitu behar dituela, baina irizpide hauek gizakiaren beharretik sortuak dira, gizakiaren ongizaterako bueltan. Ezin da ukatu, sistema kapitalistatik at jardutea oso zaila dela eta askotan zailtasun are gehiago izaten direla. Hala ere, sistema kapitalista neoliberalaren krisien eta porroten aurrean, arrakasta lortu dute ekonomia alternatiboa bultzatzen duten jarduerak, ESS besteak beste (Carpi 1997).

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren erakundeei dagokionez, asko dira maila lokalean, eskualdekoan eta nazioartekoan jarduten direnak. Nazioarte mailan, RIPESS (Ekonomia Sozial eta Solidarioaren sustapenerako Sare Interkontinentala), RELIESS (Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Politika Publikoen Nazioarteko Zentroa), CIRIEC (Ekonomia Publikoaren, Sozialaren eta Kooperatiboaren Nazioarteko Ikerketa Zentroa) eta beste hainbat ditugu izen handikoak.

Espainiar Estatuan, REAS sareen sarea edo *Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea* dugu. Lurraldeka antolatu egiten da eta gizarte justuago eta solidarioago baten alde, Ekonomia Solidarioa proposatzen du, egungo iniziatiba aberasgarriak koordinatuz eta sustatuz. Bestetik, Euskal Herriko testuinguruan, Ekonomia Sozial eta Solidarioaz gain beste izen bat duen mugimendua sortu da, *Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea*. Mugimendu berri honen bultzatzaile nagusia dugu *Olatukoop* sarea, jada 20 proiektutik

gora biltzen dituen. Honen helburuak, kideen arteko elkartasuna, jendartearen ongizatea, eta gure jarduera ekonomikoak ondare komunari ekarpen bat egitea dira.

Behin Ekonomia Sozial eta Solidarioa ezagututa, beharrezkoa da erakunde publikoekiko lotura zehaztea. Jakinda ESS juridikoki eremu pribatu baten jarduten duela baina interes eta izaera publiko-komunitario batekin, administrazio publikoen bidaide estrategikoa izan daiteke. Horretarako hurrengo atalean eztabaida honen gainean hausnartuko da.

3.3. ESS eta esku hartze publikoa

3.3.1. ESS eta administrazio publikoa

ESS aurrera egin ahal izateko eta gizarte justuago eta solidarioago bat lortzeko sinergiak eta artikulazioak beharrezkoak dira, eta ez bakarrik ESSko erakundeen artean bakarrik. Gizarte zibila motore den inizatiba honetan, ahalik eta agente konprometitu gehienekin kontatu behar da, potentzialtasun guztiak aprobetxatuz. Elkar lanketa honek, gestio publikoaren demokratizazioan eta herritarren beharren eta arazoen erantzuneko ahalmenean lagundu dezake. Horretarako, baliabide publikoak eta legedia molde ekonomiko alternatibo horiek sustatzera eta sendotzera bideratuak izan behar dira, maila mikroekonomikoaz haratago joateko eta saretzea posible egiteko (Guridi, et al, 2011).

Gaur egungo teorizazioen arabera, merkatu ekonomiaren mitifikazio baten aurrean birbanaketa publikoaren papera ez da baloratua izaten, ezta ekonomiaren elkarrekikotasunaren dimentsioa ere (Puig, et al, 2016).

Gainera, erakunde publikoen birbanaketaz aprobetxatu egiten dira merkatuko enpresa indartsuenak. Merkatu ekonomikoan nagusitzeaz eta merkatua kontrolatzeaz gain, esparru publikoaz ere baliatzen dira, bankuek ez hitz egitearren diru publikoekin salbatu baitira. Batetik, zerbitzuak eskaintzen aurrekontu publikoa xurgatuz, eta bestetik, eragiten zaien politika ekonomikoetan eskua sartuz. Beraz merkatua erregulatu behar da, baina ez da nahikoa. (Puig, et al, 2016).

Horrela, erakunde publikoak esku hartzeko eta merkatuak erregulatzeko edo arautzeko eskubidea eta ahalmena berreskuratu behar du herritarren interesen alde. Honekin

batera, nagusi diren eta mugaz kanpokoak diren indar ekonomikoei eta politikoei aurre egin behar zaie. (Guridi, et al, 2011).

Testuinguru honetan, administrazio lokalen apustua Ekonomia Sozial eta Solidarioarekiko nabaria izan da azkenaldian, hiru faktorek bultzatuta batik bat: batetik, ekonomia kapitalistak bideratutako praktiken izaera oldarkorrek eta agresiboak, ekonomia gizatiar bat eskatzen duelako; bestetik, praktika hauek herritarren jarduna bide alternatiboetan murgiltzea dakar beren beharrak asetze aldera; eta azkenik, herri mailako ekonomiak eta merkatuak dinamizatzeko politiken erantzuteko ahalmena areagotzeko beharra (Diputación de Barcelona, 2015).

3.3.2. Ekonomia Sozialerako politika publikoak

Orain arte eginiko irakurketa marko juridiko baten kokatu beharra dago, egungo politika publikoen egoera aztertzeko. Esan beharra dago, Ekonomia Sozialari zuzenduriko legeak bakarrik aurki ditzakegula gure inguruan. Estatu Espainolean legeetan aitzindaria, Ekonomia Sozialaren Martxoaren 29ko 5/2011 Legea da. Ekonomia Sozialaren baitako erakundeen (kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta elkarteak, lan sozietateak, borondatezko aurreikuspen sozialeko erakundeak, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak, enplegu zentro bereziak, arrantzaleen kofradiak, eraldaketarako nekazaritza sozietateak eta erakunde bereziak) marko juridikoa ezartzen du, eta argi usten du zer den.

Politika publikoei dagokionez, Morandeirak (2013) bere tesian Ekonomia Sozialarenganako politiken bi ikuskera ezberdintzen ditu: bata, sektorearen egituran zuzenean eragiten dituzten politikak, entitateen sorrera eta garapena bultzatuz; eta bestea, Ekonomia Sozialeko entitateen enpleguan eragiten duten enplegurako politikak. Lehenengoko politiketan, neurri instituzionalak edota finantzarioak sartuko lirateke adibidez. Bigarrenetan berriz, Ekonomia Sozialerako formazioan laguntzeko neurriak adibidez.

Politika publikoen sailkapen hau aurkezten digu Morandeirak bere lanean:

1. Taula

Ekonomia Sozialeko erakundeei zuzenduriko politikak	
Eskaintza politikak (erakundeen egituraren gainean)	
Neurri instituzionalak	<ul style="list-style-type: none">➤ Jarduera ekonomikoko sektore orotan ekiteko, Ekonomia Sozialak Agente Pribatu bezala duen ahalmenaren aitortpena.➤ Ekonomia Soziala Aktore Politiko bezala aitortzea.➤ Ekonomia Soziala sustatzeko erakunde publikoak.
Neurri kognitiboak	<ul style="list-style-type: none">➤ Ekonomia Sozialean, ikerketa, hedapena eta trebakuntza.
Neurri ekonomikoak	<ul style="list-style-type: none">➤ Aurrekontu-neurriak.➤ Neurri fiskalak (zergak).➤ Laguntza finantzariorako beste neurriak.➤ Laguntza teknikorako neurriak.
Eskari politikak (erakundeen jardueren gainean)	
<ul style="list-style-type: none">➤ Administrazio publikorako hornitzaile izateko baldintzen sarbiderako neurriak.➤ Lankidetzeta publiko-privatuen arautze eta ezartze neurriak Ekonomia Sozialarekiko.	
Ekonomia Sozialeko erakundeetan enplegua	
<ul style="list-style-type: none">➤ Ekonomia Sozialean enplegua sortzeko eta egonkortzeko neurriak.➤ Ekonomia Sozialean trebakuntza jasotzeko sostengu neurriak.➤ Beste neurriak.	

Iturria: Lanketa propioa Morandeiraren tesitik hartua.

Taula honek erakusten digun moduan, politika publikoen markoa oso zabala ez dirudien arren, hauetan eragiteko esparru ugari daude. Taula, espresuki Ekonomia Sozialean zentratutako politikei dagokio Ekonomia Sozial eta Solidarioaren marko juridikoa oso murriztua baita Europako testuinguruan. Puntu hauek ordea, jarraibide modura balio dezakete Ekonomia Sozial eta Solidarioan eragiteko eta esku hartzeko orduan. Politika batzuk ordea, nahiko erregulatuak daude eta esku hartzeko gaitasuna murriztu egiten da, neurri ekonomikoak edota juridikoak kasu.

Hurbilpen teoriko bat egin ostean, praktiken garapenarekin sartuko gara, hau da, gidaren elaborazioa azalduko da.

4. PRAKTIKEN GARAPENA

Master Amaierako Lan honen objektua eta eduki nagusia da praktiketan zehar egindako gida. Atal honetan, gida honen elaborazio prozesua azalduko da, zein motatako gida egin den, nolako egitura duen, zein esperientzia mota bildu diren, erabilitako teknikak eta beste hainbat ezaugarri aztertuko dira.

Hasteko, argi utzi behar da praktiken zeregina Udalbiltzaren proposamenaren fruitu izan dela eta hortaz, gidaren nondik norakoak Udalbiltzaren izaerari eta ildoetara egokitua dagoela, ondoren azalduko den bezala.

Gidaren garapen prozesua bi ataletan aztertuko da nagusiki. Lehenengoko atala edukietan eta egituran zentratuko da, hau da, gida bera, esperientzien aukeraketa zein irizpide jarraitu dituen azalduz eta egitura eta sailkapenaren zergatiak argituz. Eta bigarrenengo atalean, gidaren fase ezberdinak ikusiko dira, informazioaren bilaketarako erabilitako teknikak aipatuz.

4.1. EGITURA

Hasi aurretik, gidaren ezaugarri nagusiak azpimarratu nahiko genituzke. Izan ere, gida osoan zehar ikusi daitezke eta honen edukietan eta egiturari baldintzatu egin du.

Ondorengoko ezaugarriak izan dira hasiera batetik kontuan hartu ditugunak Ikerbiltzako taldeak:

- Batetik, gida sinple eta ulergarri bat egin nahi genuen. Jakinda irakurle orori zuzendua dagoela, baina batik bat udalei, hitz teknikoak ekiditen saiatu da. Beraz, ez da Ekonomia Sozial eta Solidarioaren inguruko kontzeptu eta eduki zientifiko askorik agertzen. Gainera, REAS sareak argitaraturiko *“Lurraldeak ekonomia solidariotik eraldatzea. Tokiko politika publikoak bultzatzeko tresnak”*³ gidan jorratuago dago ESSren inguruko teoria eta kontzeptuak, eta beraz, gure asmoa zen gida sinpleago bat egitea baina xede berdinarekin. Egitura aldetik, sinpleagoa da baina udaletako esperientziak azalpen zehatzagoa eta azalduagoa dute, horretan jarri baitugu fokua esperientzien aurkezpenean.
- Bestetik, erabilgarri egiteko formatua ere kontuan hartu da “gida” egitura bat aukeratuz. Horretarako, esperientziak arloka sailkatu dira eta esperientzia bakoitzak orri bat du, Euskal Herriko mapa baten txertatuak egonik.
- Azkenik, saiatu da lan orokorra eta osotua izatea, hau da, mota guztietako edukiak izatea eta ahalik eta arlo gehien ukitzea, udalenzako tresna baliagarria izateko. Hurrengoko atalean saiatuko da puntu hau garatzen.

4.1.1. Atalak

Gidarekin hasteko **sarrera** bat izango dugu, zeren aurrean gauden azaltzeko. Sarrera edo aurkezpen honetan, gidaren zergatia eta xedea agertuko da eta Udalbiltzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaren fruitu dela adieraziko da. Atal

³ http://www.economiasolidaria.org/files/gida_politika_publicoak_ekoSol.pdf

honetan, gure helburua izan da gidaren aurkezpena egitea eta jakinaraztea udal politika publikoen gida baten aurrean geundela, Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarrituz.

“Esperientzia hauek ez dira politika publiko arruntak. Hauen helburua politika publikoen marko berria eraikitzea da. Horretarako, Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) dute tresna nagusitzat. Esperientzia hauetako asko ESS ardatz dute, beste batzuk aldiz norabide horretan emandako pausuak dira, praktika txikiak”. (Gidako sarreratik hartutakoa).

Hitz hauekin argitu nahi da, esperientzia denak ez direla berez ESSko inizatibak, baina denak dutela oinarri eta jomuga bera, eta beraz, aliatuak izan daitezkeela gizarte eredu sozialago bateranzko bidean. Esan genezake beraz, politika publikoak ESSaren parte direla lurraldearen garapenaren eta eraldaketa sozialaren proiektu berean murgilduta dauden heinean. Aurkezpenarekin bukatzeko, Udalbiltzaren azken urteotako jarduna azpimarratzen da eta Ekonomia Sozial eta Solidarioarekiko duen harremana azaldu egiten da.

Bigarren atalean, **hurbilpen teoriko** simple bat egiten da Ekonomia Sozial eta Solidarioaren, Tokiko Giza Garapenaren eta politika publikoen testuinguruan txertatzeko. Horretarako, egungo gizarte ereduaren ezaugarriak modu labur baten azaldu dira ondoren alternatibak aurkezteko. Aurretik esan bezala, atal teorikoen konplexutasun eza nabaria da gida osoan zehar, ez baita eztabaida kontzeptualetan eta teorikoetan sartzen.

Hurrengo atala da eduki eta sakontasun gehien duena. **Esperientzien** atal honetan, aurkitu diren kasu gehienak txertatu dira eta talde edo arlo ezberdinetan sailkatu ditugu. Honetan, Euskal Herriko udal ezberdinek bideratutako politikak eta praktikak agertzen zaizkigu, Ekonomia Sozial eta Solidarioa oso presente izanik. Atal honen edukiak azkeneko kapituluan azalduko dira.

Esperientziak behin azalduta, gidan azken puntu bat gaineratzea adostu genuen. Beharrezkoa ikusten genuen **aholkuen edo jarraibideen** kapitulu bat sartzea, udalek Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko eta politika publiko sozialagoak eta kolektiboagoak praktikan jartzeko. Lanketa teorikoan jarritako politika publikoen taularekin bat egin dezake, izan ere, politika publikoak nora eta nola bideratzeko gomendioak ematen dituzte. Horretarako, *Fundación Intercooperation América Latina*

eta HEGOA institutuak argitaraturiko “*Territorialización de la economía social y solidaria*”⁴ liburura jo dugu, eta hurrengoko puntuak zehaztu ditugu:

- Herrietako praktika eta eredu komunitarioak, kooperatiboak eta asoziatiboak indartu, garatu, artikulatu edota berreskuratu.
- Herri ekonomiaren eredu primarioen bidez, kooperatiba eta elkarleen ekonomia herrikoia sorrarera bultzatzea.
- Desintegrazio prozesuetan dauden komunitateen sendotzea eta berreraikitzea bideratzen duten herri erabakiak eta inizatibak laguntzea eta bultzatzea.
- Sektore publiko edota pribatuen funtzio eta errekurtso produktiboen edo bizi bitartekoak, herri ekonomiara eta ekonomia sozial eta solidarioa eskualdatzea bultzatzea.
- Ekonomia Sozial eta Solidarioko eragileak mesedetuko dituzten sektore publikoaren funtzio solidarioak, birbanatzaileak eta arautzaileak sendotzea eta hauetan sakontzea.
- Sektore ezberdinen artean sortzen diren eredu mixtoak hedatzea, ekonomia sozial eta solidarioan sakontzeko.
- Herri elkarte eta mugimenduak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko esperientziak ekintza publikoetan aktiboki parte hartzea bermatzen duten dinamikak ezartzea eta formulatzea.

4.2. FASEAK

Praktiketako lehen asteetan, *proiektua definitzen* aritu ginen Ikerbiltzako lankide bat eta biok. Argitu beharra dago, gidaren elaborazio prozesu guztian zehar egon dela jarraipena egiten, eta nahiz eta zuzenean gidan lanean ez egon bere ekarpenak egin zituen.

Behin proiektua definituta, *esperientzien informazioa* lortze aldera, bigarren mailako datuetara jo da. Gehienbat, albisteetatik atera da informazioa, batzuetan ezaguna izanik

⁴ http://publicaciones.hegoa.ehu.es/assets/pdfs/301/GUIA_ESS_completa.pdf?1488539907

esperientzia, eta besteetan, erabat ezezaguna. Nolanahi ere, kasu denak aztertu dira banan-banan eta informazioa eskasa izatekotan, beste informazio iturriez baliatu da, telefono bidezko elkarrizketak (kasu guztietan gidoi pertsonalizatuekin zirriborro modura), mezu elektronikoak eta elkarrizketa sakonak batik bat. Teknika hauek ordea, hurrengo fasean erabili dira batez ere, informazio dezente lortu baitzen. Esan beharra dago, nahiko lan zaila izan dela horrelako informazioa lortzea, informazio iturri ezberdinetan arakatu behar delako.

Honekin, lehenengoko fasea bukatutzat eman bazen ere, praktketan zehar esperientzien biltegia edo multzoa aldatzen joan da arrazoi ezberdinengatik. Azken fasea, informazioaren kontrastea edo egiaztatzea izan da, eta horretarako, aurretik aipatutako tekniketara jo dugu. Lehen mailako informazioa izan da gehienetan, informazioa kontrastatzerakoan ezustekoak izan baitziren. Telefono deietara eta mezu elektronikoetara jo dugu urruti zeuden esperientzien informazioa egiaztatzeko. Kasu askotan pasa zaigu arrazoi ezberdinengatik (gobernu aldaketak, aurrekontu falta, arrakasta gutxi ...) proiektua bertan behera gelditzea.

Elkarrizketa sakona kasu gutxitan erabili da, baina benetan aberasgarria izan da Ekoizpen Garapen Agroekologikorako Zerbitzuko arduradunari eta Hernaniko eta Beterriko Garapen Agentziako arduradunari egindakoak. Bi esperientzia hauek, potentzial handiko proiektuak dira. Lehenengokoa, Urduña herriko trantsizio agroekologikorako estrategiaren zutabea da, lehen sektorea eta basoa lursailak dinamizatzeko udaletxetik bideraturiko zerbitzua edo bulegoa baita. Lehen sektorea eraldatzeko helburua dute beste arlo asko ere ukituz: kontsumoa, elikadura, ekologia, jasangarritasuna, elkarlana eta lankidetzeta... Garapen Agentziari dagokionez, esku artean zituzten proiektuen artean bi aukeratu genituen gure xedeei egokituta. Ikuspegi berritzailea duen Garapen Agentzia da Beterrikoa, ekintzailetasun programa garrantzitsuak sustatuz. Kontuan hartu behar da, eskualdeko udalen arteko programak eta proiektuak direla, nahiz eta, Hernaniko Gabriel Zelaia eraikina izan bulego nagusia edo jardun gehien duena.

Behin kontrasteak egiterakoan, gida txukundu eta maketatzerara bidali da, publikazio elektronikorako. Ekaineko azken asteetan bukatu da gida eta beraz, espero da uztailan argitaratzea.

4.3. EDUKIAK

Lehenengoz, sailkapenaren zergatiak eta edukiak azalduko dira, eta ondoren, esperientzien azalpenekin eta edukiekin.

4.3.1. Sailkapena/atalak

Sailkapenari dagokionez, sinpletasunaren ezaugarriari jarraitzen dio eta beraz, gizarteko arlo ezberdinen zerrendaketa tradizionala erabili da. Erabaki hau, udalen egiturei erreparatuta egin da, hau da, neurriren bat edo programaren bat aurrera eraman nahi izatekotan, gidan erraztasun osoz lortu ahal izateko. Sailkapen honek ordea, ez du bermatzen kontzeptualizazioa eta sailkapen eredu tradizionalak eraldatzea REASEk argitaraturiko gidan bezala, baina ezarritako ezaugarriei eta helburuei erantzuten die. Ondoren, saiaturiko da aukeraturiko arlo ezberdinak azaltzen. Kontuan hartuta udalei zuzenduriko gida dela, saiatu da hauen jarduneko alor garrantzitsuenetarikoak gaineratzen. Hortaz, hurrengoko sailkapena izan da gidarako proposatu dena, hainbat irizpideri jarraiki:

- Kontratazio publikoa

Hasiera baten “Gobernantza” deitu genion atal honi baina iruditu zitzaigun nahiko orokorra zela erosketak publikoez, eta espresuki, klausula sozialez hitz egiteko, ez baitugu beste esperientziarik sartu. Gaikako aurkezpenean, erakunde publikoen garrantzia azpimarratu egin da, enplegu-emaile garrantzitsuak diren heinean. Hortaz gain, klausula sozialak aplikatzeko mekanismoak eta faseak aurkezten dira.

- Finantza etikoak

Finantza etikoen kasua estrategikoki garrantzitsua ikusi genuen, batez ere, ikusirik azken aldian udalen eta banku etikoen arteko lankidetzaren areagotu egin dela. Gainera, finantza etikoen alde egiteak herriaren aurrean irudi egokia emateaz gain, beste lan

ildoetarako eta elkarlanerako aukerak zabaltzen ditu, eta pauso edo ekintza txiki honekin inpaktua garrantzitsua lortzen dugu gizarterako.

- Merkataritza

Ildo honi dagokionez, nahiko zaila izan da definitzen inizatiba ugari eta ezberdinak baitzeuden multzo berean. ESStik hurbil zeuden hiru kasu aukeratu ditugu azkenean, baina herri askotan aurkitu ditzakegu komunitatean oinarrituriko jarduera tradizionalak, trukeak eta azokak esaterako.

- Kontsumo arduratsua

Kontsumo arduratsua sartu genuen, inpaktu handiko esperientzia sinple bat aurkitu genuelako. Esperientzia hau ordea, herri handiei eta hiriei zuzendua zegoen bidezko merkataritzaren aldeko kanpaina bat zelako eta establezimendu hauek ez ditugu edonon aurkitzen. Dena den, tokiko garapena, ekoizpen ekologikoa eta beste ildoetan jarduten duten establezimenduetarako aproposa izan daiteke.

- Lehen sektorea

Euskal Herriko lurraldean potentzialtasun handia duen jarduera dugu lehen sektorea. Gainera, alor honetako esperientzia aberasgarri asko aurki ditzakegu hemen. Bestetik, gainbeheran doan sektorea da, batez ere, landa eremuetako sektore tradizional bezala, eta jarduera industrial bihurtu egiten da. Prozesu honen inpaktua inguruan, tokian toki eta gizartean kaltegarria da eta horregatik beharrezkoa da lehengo sektore jasangarri bat dinamizatzea. Gidaren kasuan, berebiziko atala ikusten genuen azaldutako arrazoiengatik eta beste atalekin ondo uztartzen zelako.

- Ekintzailetasun soziala

Ekintzailetasun esperientziak aukeratu dira enpleguaren atalean Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin duten harremanagatik. Batez ere, Ekonomia Sozialeko eragileen eta udal ezberdinen artean sustaturiko elkarlanen bidez ekintzailetasun sozialeko programa interesgarriak sortu dira Euskal Herri osoan.

- Espazioen kudeaketa

Espazio publikoen gestiorako atal honek, udal lursailei eta eraikinei irtenbide kolektiboa eta soziala emateko adibideak aurkezten ditu. Gehienetan, utzik eta abandonaturik geratzen diren eraikinen berrerabilpenerako ideiak ematen dira, edota negoziara bideraturiko lur sailei aterabide komunitario bat proposatzen da.

- Etxebizitza

Atal honetan, etxebizitza duin baterako sarbidean zentratu gara, batez ere, etxe hutsen problematikari erantzuteko. Ikusita Euskal Herriko herri askotan dauden etxe hutsen kopurua, hainbat udalek bi erabaki ezberdin hartu dituzte: batetik, neurriak hartu dituzte etxe hutsen gainean; eta bestetik, bitartekoak jartzea etxebizitza hauek erabili ahal izateko.

- Energia

Udalak multinazional energetiko handien erosle garrantzitsuak diren heinean, finantzak bezala, energia ere gizartearen eraldaketarako estrategikoa ikusten genuen. Finantza etikoen kasuan bezala, energia berriztagarria eta iraunkorrak aukera anitz ematen ditu bere alde egiterakoan, konpromiso mailaren eta baliabideen araberakoa betiere.

- Turismoa

Azkenik, estrategikoa den beste sektore bat sartu dugu baina ibilbide gutxi egin duena edota oraindik ere asko sakondu gabe dagoena. Dena den, turismoaren baitan aukeratu dugun kasua aproposa iruditu zaigu turismoa Ekonomia Sozial eta Solidariora hurbiltzen baitu. Egia da turismoak tokiko garapenean inpaktu ekonomiko garrantzitsua duela, baina ez dugu ahaztu behar beste motatako ondorio negatiboak ere izan ditzakeela, hala nola, bertako egituren desorekak, jarduera tradizionalen eta kulturalen baztertzea, enpleguen prekarizazioa eta beste hainbat.

4.3.2. Esperientziak

Behin sailkapenak aurkeztuta, *esperientzien azalpenekin* sartuko gara. Gure asmoa gaikako esperientzia bat gutxienez sartzea, eta bi edo gehiago egotekotan elkarren artean ezberdinak izatea. Horrela, kasu erreal baten aurrean aukera ezberdinak ditugu. Bestetik, Euskal Herriko ikuspuntu batetik, lurralde guztietako esperientziak biltzen saiatu gara eta zaila bada ere, esperientzia kopuruak orekatu nahi izan ditugu. Kasu hauek, zuzenean udaletatik edo udalen eta beste agenteen hitzarmenetatik bideraturiko ekimenak dira. Hurrengo politika motak ezberdindu daitezke:

- Praktika onak: ekimen puntual bezala definitu ditzakegu, sentsibilizazio kanpainak, azokak eta kontratazioak adibidez.
- Proiektuak: orokorrean luzeagoak izaten dira denboran eta konpromiso altuagoko ekimenak dira, askotan hitzarmen bat suposatuz.
- Programak: askotan plan integral baten baitan kokatzen dira arlo jakin bat jorratuz, etxebizitza edo enplegua adibidez.
- Egitura juridikoak eta egitura instituzionalak: aurreko politikak indarra hartu eta instituzionalizatu egiten direnean agertzen dira. Agente eta mugimendu ezberdinen presioagatik sortzen dira askotan, behar batzuk bultzatuta. Hauek artean, legeak, bulegoak eta beste hainbat aurki ditzakegu.

Esperientziak aztertzeko, aurreko sailkapena hartuko dugu ordena jarraitzeko eta horrela kasuen aukeraketaren zergatia argitzeko. Aurretik esan bezala, estrategikoki aukeratuak izan dira, aukera ezberdinak erakusteko.

- Kontratazio publikoa:

Atal honetan bi kontratazio prozedura edo lehiaketa eta instrukzio edo ordenantza bat ageri dira. Kontratazioetan klausula sozial ezberdinak txertatzen dira, kontratu erreserbatuak, esleipen fasean ezarritako klausulak, etab. Irizpideak ere mota ezberdinetakoak dira (ingurumenezkoak, sozialak, linguistikoak, genero ikuspegia

txertatzekoak...). Instrukzioaren kasuan, hainbat neurri eta adierazpen daude kontratazio arduratsua eta klausula sozialak praktikan jartzeko.

- Finantza etikoak:

Hiru kasuak osagarriak dira, hots, finantza etikoekin elkarlanean aritzeko hiru aukerak bezala aurkezten dira, konpromiso mailaren eta baliabideen arabera izanik. Bazkietze sinple eta erraz batetik, proiektuen garapenera arte doan aukera sorta agertzen dira.

- Merkataritza

Jakinda udalekin lan egiten ari garela, eta hauen ekimenak izan behar direla, aukerak murrizak dira. Hortaz, atal honetan sartu ditugu moneta sozial delakoak eta REAS sareko azoka solidarioa. Moneta sozialen artean, “Eusko” txanpona eta “Txantxia” aukeratu ditugu. Lehenengokoa, Euskal Herriko lehen moneta soziala da, bigarrena ordea, Oñatiko udalak jalgitako txanpon lokala. Biak, tokiko merkataritza sustatzea eta herriko gastu ihesa ekiditea dute helburu.

- Kontsumo arduratsua

Kontsumoari dagokionez, zeharkako arloa izan daiteke kasu askotan, lehen sektorearekin, energiarekin eta beste hainbat arloekin erlazionatuta baitago. Dena den, aukeraturiko kasua egokia iruditu zitzaigun edozein gai jorrazteko sentsibilizaziorako eta bisibilizaziorako kanpaina baita. Bidezko merkataritza ikusarazteko kanpaina honetan ESSko eragile ezberdinak parte hartzen dute.

- Lehen sektorea

Arlo honetarako aukeraturiko esperientziak benetan aberasgarriak dira. Batetik, politika publiko bezala mailaketa eta konplexutasun ezberdina dute praktika onetatik, zerbitzu eta bulegoetara baitoa. Bestetik, emaitzak alde batera utzita, potentzialtasun handiko ekimenak dira lurraldean zuzenean eragiten dutelako.

- Ekintzailtza soziala

Ekonomia Sozial eta Solidarioan tresna garrantzitsua da ekintzailtasun soziala. Ikusita azken urteotan martxan jarri diren proiektuak interesgarri ikusten genuen hauetako

batzuk aipatzea. Laguntza ekonomiko eta sozialerako zentroa, Kooperatzen eta KoopFabrika proiektuak dira aukeraturiko esperientziak alor honetan, azken biak zutabe beretik sortuak. Azken bi hauek, Beterriko eta Oarsoaldeko udalen eta beste eragileen arteko elkarlanean sorturiko inkubagailu-proiektuak dira. Laguntza ekonomiko eta sozialerako zentroa, Hendaiko herriko etxearen egitasmoa da aurreko proiektuen helburu berarekin. Honetan, ESS bultzatzeko proiektu ezberdinei aholkularitza eta trebakuntza eskaintzeko sortu da.

- Espazioen kudeaketa

Atal honen esperientziak helburu ezberdina duten proiektuak dira baina izaera bera dute. Hiru esperientziak egoera beretik abiatzen dira, erabili gabeko lursail edo eraikinak dira hauek. Lehenengokoa, Astra Eraikina, “Kulturarako fabrika” bezala funtzionatzen du eta herri osoari irekia dago. Udalak eraikina erosi zuen eta herritarrei eman zien hauen urteetako eskakizunen ostean. Bigarren kasua, “Geltokia” Iruñean, Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatzeko eta bultzatzeko eraikin baten berreskurapena da, Udalak abiatuz. Gainera, ESSko talde-eragile bat sortu da jarduna dinamizatzeko. Azken proiektua, Orozkoko Udalak abiatutako udal ortuen egitasmoa da. Aproposa iruditu zitzaigun lehen sektorea jorratzeaz eta lurraren erabilpen iraunkorra sustatzeaz gain, izaera komunitarioa eta kolektiboa duen inizatiba delako. Bestalde, oinarri ekologikoekin funtzionatzea zuen helburu eta udalak ikastaro bat antolatu zuen parte hartzaileentzako.

- Etxebizitza

Etxebizitzaren problematikari irtenbidea emateko bi alternatiba nagusi aukeratu ditugu udal ezberdinek aurrera eraman dituztenak. Etxe hutsei zerga bat jartzea da lehenengo aukera. Donibane Lohizunen, Hendaian eta Bermeon jada aplikatzen da zerga hau Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren bidez. %40-50 bitarteko gainkarga ezartzen da normalean. Bigarren kasua, etxe hutsak alokairura bideratzeko egitasmoa da eta Oiartzungo esperientzia aukeratu dugu. Oiartzungo udalak, bitartekoak jarri ditu etxe hutsak alokairuan jartzeko, bai etxejabeentzat, baita maizterrentzat.

- Energia

Energiari dagokionez, Energia Gara (SOM energia), Goiener eta I-ener ditugu aliatu nagusiak. Esperientzia asko aurki ditzakegu alor honetan eta seguruenik hemen jarri ez

ditugun kasu interesgarri asko egongo dira. Energia berriztagarrien alde egin duten udal ezberdinen kasuak aipatu ditugu, kooperatiba energetiko ezberdinekin kontratua zinatuz, gainera, beste behin ere, kolaboratzeko aukera ezberdinak daude. I-enerren kasuan, proiektu sendoagoak dira energia berriztagarria ekoizteko aukera baitu. Azkenik, Gareseko proiektua dugu kasu aipagarri bezala. Energia Gara eta Koop57 kooperatibek bultzatutako lehiaketan saritua izan den inizatiba da eta herria argindarraz hornitzeko helburua du.

- Turismoa

Turismo arloko udalen esperientzia eskas daude. Dena den, “Arrigorri” Ostatu Jatetxea iruditu zaigu egitasmo egokia. Izan ere, Ekonomia Sozial eta Solidarioko inizatiba dugu eta Olatukoop Ekonomia Sozial eta Eraldatzaileko sarearen kide da. Udalaren parte hartzea oso bizia ez bada ere, proiektua bultzatzeko tresnak bideratu zituen.

5. BALORAZIO KRITIKOA

Lehenik eta behin, azpimarratu beharra dago praktika hauek ekarpen eta gaitasun aberasgarriak eskaini didatela. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eta administrazio publikoen arteko harremanak kasu praktikoetan ezagutu ahal izateak, Masterrean jasotako edukiak erabiltzeko eta kontrastatzeko aukera eman dit. Ezagutzen aldetik, gida egiteak Euskal Herriko esperientzia ugari biltzea eta ezagutzea bermatu dit, eta beraz, jende eta eragile interesgarria ezagutu ahal izan dut.

Hainbeste esperientzia ezagutuz, gaitasun ezberdinak eskuratu ahal izan ditut, besteak beste, proiektuak diseinatzeko trebetasuna. Herrien eta lurraldeen ezaugarritasunak eskatzen du tokian toki proiektu ezberdinak garatzea. Hortaz, proiektu bat aurrera ateratzerakoan edo diseinatzerakoan kontuan hartu beharreko irizpideak eta ezaugarriak ezagutzea bermatu dit praktiken esperientzia honek.

Ahulguneak edo alde negatiboak erreparatzerako orduan, pena izan da gida egiteko denbora mugatua izatea, eta beraz, nahi bezain osotua ez geratzea. Bestetik, informazio iturri eskasengatik, esperientzia asko eta asko ez dira ezagutzera eman, eta gainera, lortutako proiektu asko bertan behera geratu dira desoreka eta aldaketa politikoak direla medio. Azkenik, gida mugatua da arlo eraldatzaile eta estrategiko askotan, zaintzan adibidez. Oraindik ere, alternatiba askorik gabeko esparruak dira, baina jada erantzuna behar duten problematikak dira.

Udalbiltzari dagokionez, ekarpen handiko esperientzia izan da. Batetik, Euskal Herri osoan lan egiten duenez, lurralde ezberdinen ezaugarriak ezagutzea bermatu dit. Gainera, partzuergotik bideraturiko proiektuen eta programen garapena zuzenean jarraitu ahal izan ditut, baita Ekonomia Sozial eta Solidarioaren eragileekiko lankidetzak eta harremanak ere. Azkenik, politika publikoen eremua oso presente dago Udalbiltzan, diru laguntzak, zergak eta beste hainbat neurri eguneroko ogi baitira. Ekonomia Sozial eta Solidarioarekiko ideiak ordea, okerrak edo zalantzarriak izan daitezke. Horregatik, esan dezaket ekarpen nabariak egin ditudala nire praktika egonaldian, eta seguru nago lankideak gustu handiz bereganatu eta erabiliko dituztela. Udalbiltzarekin bukatzeko, orain arte ibilbide laburra izan arren eta gizartean oso

ezaguna ez den arren, egiten ari den bidea azpimarratzekoa da, eta baliteke Ekonomia Sozial eta Solidarioaren aliatu estrategikoa izatea hurrengo urteei begira.

Orokorrean, praktika hauek egin duten ekarpena Masterrari plus bat gaineratu diote. Udalbiltza ESSko agente zuzena ez den heinean, ESSrekiko beste ikuspuntu bat eta abiapuntu bat erakutsi dit. Honek, ordea, bermatu dit lankideekin gaitasunen, ikuspuntuen eta ezagutzen hartu-eman bat egotea. Bestalde, talde lana sustatzen duen ingurunea izan da praktiken esperientzia, eta taldekideekiko interesa gidan eta proiektu guztietan nabaria izan da. Horrez gain, lan kolektiboa presente egon arren, lan autonomoa izan da gehienbat gidari dagokionez. Erabakiak denon artean hartu arren, gidaren zeregina, kontaktazioak eta beste egitekoak nire lana izan dira azken hilabeteetan. Azpimarratzekoa da ere, erakunde, enpresa, edota beste talde batentzat lan egiterakoan beste erritmo eta konpromiso bat eskatzen duela, eta hortaz, jarrera arduratsua erakutsi behar dela. Kasu honetan, bulegoko giro onak eta gustuko lanak nire jarrera arduratsua eta konprometitu izaten lagundu du.

Lanari dagokionez, aukera aproposa ikusten nuen gidaren jarraipen edo garapen bat egitea. Gida egiterakoan hartutako erabakiak azaltzea eta erakustea gida irakurtzen eta jarraitzen laguntzen du, eta giza garapenerako berebizikoak diren bi agenteen lotura eta elkarlana ikusgarri egiten du. Master Amaierako Lana ordea, ezin izan dut nahi bezain beste garatu denbora eskasagatik. Praktikak pixka bat lehenago hasi nituen eta horren arrazoi dugu bukatuta egoteak, baina praktika epeak eta lanaren entrega epeak Irailerako deialdira eramaten zaitu.

Bukatzeko, politika publikoei dagokienez, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren ikuspegi batetik egindako ibilbidea laburra da. Politika publiko sozialago eta solidarioetaranzko bidea oraindik ere egiteke dago, baina ziur gaude orain arte emandako pausuak egokiak direla. Gida hau eta lan hau ez da inongo galderaren irtenbidea edo erantzuna, are gutxiago, udalak jarraitu behar duten bidearen mapa bat. Aurrean duguna, egitasmo on askoren liburu bat da, jarduera sozialago eta solidarioago bateranzko aukera ezberdinak erakusten dizkigunak. Eta ikusi dugunez, aukera hauek existitu egiten dira eta hauen ekarpenak inpaktu garrantzitsua izan du lurrandean.

BIBLIOGRAFIA

Carpí, J. (1997). La economía social en un mundo en transformación. CIRIEC– España, 25, 83-115.

EUROPEO, C. E. Y. S. (2008). La economía social en la Unión Europea. Informe de Chaves, R. y Monzon, JL.

CORAGGIO, José Luis (2011): Economía social y solidaria. El trabajo antes que el capital. Alberto Acosta eta Esperanza Martínez (Argitaratzaileak). FLACSO/Abya Yala. Quito.

Diputación de Barcelona (2015). Guía de Economía Social y Solidaria para la administración local.

Guridi, L. et al. (2011). Experiencias de Economía Social y Solidaria: compartiendo estrategias y aprendizajes. REAS EUSKADI. Bilbao.

Harguindeguy, L. C., Rodríguez, A. M., eta Dierckxsens, W. (2008). La Economía Social y Solidaria. Pasos. DEI, Departamento Ecuménico de Investigaciones (135), 1-11. San Jose.

Larrañaga, M. eta Jubeto, Y. (2011). Tokiko giza garapena eta genero berdintasuna. Cuadernos de Trabajo Hegoa, (56).

Morandeira, J. (2013). El servicio público de fomento de la economía social en el País Vasco desde una perspectiva de orientación al mercado. Propuestas y acciones

(Doctoral dissertation, Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea).

Donostia.

Pérez de Mendiguren, J. C., eta Etxezarreta, E. (2014). Ekonomia sozial eta solidarioa: zer da eta nola ulertzen da?. Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria-Revista Vasca de Economía Social. X. urteurrena, 13-34.

Pérez de Mendiguren, J. C.; Etxezarreta, E. y Guridi, L. (2009): “Ekonomia Soziala, enpresa soziala eta ekonomia solidarioa: kontzeptu ezberdinak eta eztabaida berbera”, Ekonomia Solidarioaren Paperak, Reas-Euskadi, Bilbao.

Puig, C., Coraggio, J. L., Laville, J. L., Hillenkamp, I., Farah, I., Jiménez, J., ... eta Pérez de Mendiguren, J. C. P. (2016). Economía Social y Solidaria: conceptos, prácticas y políticas públicas. Hegoa institutua.

REAS , Sareen Sarea (2011): Ekonomia Solidarioko Printzipioen Gutuna

Zurbano, M., Gainza, X., eta Bidaurratzaga, E. (2014). Interrelación local-global en los procesos de Desarrollo Humano Local. Hegoa institutua.